


Herri Aldizkaria  
**otomotz**



*Amador* laburmetraia  
grabatu du herritar  
talde batek



# Otamotz mundu guztian irakurgai!



Maiatzaren 27a geroztik, OTAMOTZ aldizkaria interneten bidez, mundu guztian irakurri daiteke. Aipagarria da gainera, lehenengo egunean 40 bat lagun aritu zirela Otamotz orria irakurtzen. Otamotz aldizkariaren edukia sartu da oraingoan, eta epe laburrean bai Zintzo-Mintzori buruzko informazioa, bai beste zerbitzuak eskaintzeko asmoa dugu.

Internet-en sartzan den 3. herri aldizkaria da. Internetek informazioa eskaintzeko beste bide bat dugu, izan daitezken muga guztiak -urruntasuna esate baterako- apurtzen dituelako. Interneten bitartez, sarerako konexioa duen edozein lagunak irakur dezake Otamotz munduko edozein lekutik, eta gure asmoa bai kanpotarrek gure herria ezagutzea, baita kanpora joandako herritarrek ere herrian mamitzen dena ezagutzea da.

Gunea eraikitzen ari gara, hau da, informazio gehiago sartu behar da EEBB-etan kokatutako ordenadore batean. Web orri berri hau oraindik ere proban dago eta epe laburrean hobetzea espero dugu. Otamotz irakurle, Interneten bitartez gure aldizkaria irakurtzerik baduzu, zure iruzkinak zein ideiak gustura hartuko ditugu kontuan.

Norbaitek Otamotz, ordenadorearen bidez irakur nahi badu, hona hemen helbidea:

<http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Eta e-mail edo posta elektronikoz gurekin kontaktuan jarri nahi izanez gero honako hau da helbidea:

[otamotz@geocities.com](mailto:otamotz@geocities.com)



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren diru laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduaren diru laguntza jaso du



Aldizkari honek Urretxuko udalaren diru laguntza jaso du



Aldizkari honek Zumarragako udalaren diru laguntza jaso du

## Azterketak

*Ekainarekin batera dator ikasle baten kondena, hala ta guztiz azterketekin zertan estutu barrena? nik behintzat garbi daukadalako zer dugun azterketena, ikasle batek berekin duen jakinduri ahalmena, neurtu asmoz asmatu zuten modurik absurdoena.*

*Ekosten pasa ohi ditugunez bizitzaren hiru laurden, bada garaia eta guztiok hartu dezagun atsedea, dela txuleta. kanbiazozez, nahiz kopiatuz nabarmen, aurtengo hontan izan dezagun guztiok nahikoa kemen, aprobatazea baita kontua ez nola aprobatazen den*



**NEREA**

## Iparragirre Saria?

**N**orbera dena izanez, irudimenak beste nortasunetara hurbiltzen duten momentuak sortzen ditu eta niri une honetan halako zerbait gertatzen zait, bertsolaria izatea gustatuko litzaidakeela. Gaia jarri didate, **Iparragirre Saria**, gai jartzailera, Urretxuko Udala. Baina ni ez naiz bertsolaria, ez naiz gauza zortziko bidez adierazteko zergatik ez nagoen ados gure herria aurkeztu diren lehiaketekin. Bertsoak idazten jakin ez arren, Iparragirrearen sentimenduak eta izaera oker erabiltzen ari zareten Urretxuko Zinegotzietan zuten Erdal Herria gure Euskal Herria dela gogorazazi gabe ez naiz geldituko.

Aurtengo Narratiba eta Poesia Lehiaketari **Iparragirre Saria** izena eman diozue, Bertso Paper Lehiaketa kanpo utziz eta honi XIII. zenbakia emanez, hala, Iparragirrearen bertsolari nortasuna ukatuz. Tolosako fiskalak egin zuen antzera, Iparragirre kartzelatu ondoren atzerira bidali, "zuek

bertsoak bai!" esan duzue, baina "hauen ohiartzuna ez!" bertsoak euskal aurrerakidiaz adierazten baitu.

**Iparragirre Saria** Lehiaketarako narratiba eta poesia lanak idazte bakoitzaren hizkuntzan aurkez daitezkeela diozue. Antzeko oinarria Euskal Herriatik at tira, baina euskal aberria halakorik egiteak kultura handiaren kutsadura erakusten du. Bere amak hau baleki ez dakit negar egingo zukeen, baina badakit Jose Mariaren ustetan bihotz gabeko euskaldunak zaretela.

Narratiba eta Poesia Lehiaketari bertsolari baten izena jarri eta Bertso Paper Lehiaketa zenbatgarren edizioa den azalduz zerbait handia egin duzelakoan zaude. Doinua eman gabe abes- teia posible dela sinistea zuen aukera izan daiteke, gu zuek bezalakoekin erribindikazioaren eta salaketaren bidea ez goaz uztera.

**Jesus Mari Urbegain**

HBko zinegotzia

**OTAMOTZ** hilero doan etxean jaso nahi nuke, edo ondorengo lagunari oparitu nahi nioke

**IZENA:**.....

**ABIZENAK:**.....

**HELBIDEA:**.....

**HERRIA:**..... **K.P.:**.....

Bidali datuak Zintzo Mintzora, Labeaga 12, Urretxu edo deitu 72 57 75 telefono zenbakira.

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20.700 Urretxu. Tel:725775 **Koordinatzailea:**Amaia Pildain. **Erredakzio kontseilua:** Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldia. **Diseinua:**Sebas Iturrioz. **Informatikaria:**Jonmikel Insausti. **Laguntzaileak:** Bertso eskola, Nerea Elustondo. Iñaki Bastarrika, Jabier Otermin. **Inprimategia:**GERTU Koop. E (Zubillaga. Oñati) **Lege Gordailua:**SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 Tirada:1.300 ale. **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Hilaren 18an familia eguna ospatu zuten Lourdesko Ama parrokian. Jai eguna goizeko 10etan kalejirarekin hasi zen, meza entzun eta gero, auzoko aitona amona zaharrenak, 94 urteko Eusebi Bastarrika eta 89 urteko Juan Miguel Salaberria omendu zituzten. Dantzariak aureskua dantza egin ondoren, makil bana oparitu zitzaizen bi omenduei. Inguratutakoek hamaiketakoak jan, makina jolas egin eta bazkaria izan zuten (130 lagun bildu ziren ikastolan bazkaltzera). Jaiaren helburua eliza kalera ateratzea zen. ARTIZAR aisialdiko gazteak ibili ziren jokuak antolatzen eta parroko lagunak egindako bazkaria zerbitzatzeko. Egun polita pasatu zuten guztiok eta datozen urteetan ere jai antolatzeko asmoa dute Lourdesko Ama parrokiakoek.



AGUIFESek, Gipuzkoako senide eta eri psikikoen elkarteak, 1997 urteko sentsibilizazio kanpaina burutu du maiatzean. Gipuzkoako herri askotan izan dira hitzaldiak eta filmeak. Urola Garaian Legazpin eta Zumarragan ere izan da horrelakorik. Hilaren 19an eta 20an Maria Jesus Zabalo psikiatrian doktorea denak, bi hitzaldi eman zituen Legazpi ikastetxe-ko aretoan. Filmerik ikusteko aukera ere izan zen toki berean.

### ❑ Irrintzik antolatutako Dantzari Txiki Eguna

Ekainak 1ean Irrintzi Dantza Taldeak eta Zumarragako Udalak antolatutako Dantzari Txiki Eguna izan zen Zumarragan. Gabiriako Goruntz dantza taldea, Azpeitiako Itsasi taldea, Markiñako Zerutxu, Beasaingo Ostadar eta Zumarraga-Urretxuko Irrintzi dantza taldeko dantzariak aritu ziren Zumarragan dantzan. Goizean euri asko egin zuenez, ezin izan zen bete, antolatzaileek prestatutako egitaraua. Herrian zehar egin beharreko kalejira bertan behera geratu zen eta dantzariak Legazpi Eskoletako pilotalekuan pasa zuten goiza. Arratsaldean Beloki pilotalekuan izan zen dantza emanaldia.

### ❑ Asier Otamendi txapelkun berria

Asier Otamendi urretxuarrak apirilaren 20an izan zen Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama VIII. bertso txapelketa irabazi zuen. Txapelketa honetan arabarrek edota bertsoetan Araban ikasitakoek bakarrik har dezakete parte. Asier Otamendi ikasketak egitera joan zen Gasteizera, orain lana dela eta bertan bizi da eta Urretxuko bertso eskolako partaidea bada ere, Gasteizko bertso eskolan ere aritu da bertsoetan. Asier Otamendi seigarren postuan geratu zen aurten Araba-Bizkaia bertso txapelketan beraz, lan bikaina aurten urretxuarra egiten ari dena.



Argazkia: Renedo



Argazkia: Renedo

142 neska-mutilek egin dute jaunartzea Urretxu eta Zumarragan.

Urretxuko Loudesko Ama Parrokian 17 izan dira lehenengo jaunartzea egindakoak, San Martin de Toursen 40, Zumarragako Jasokunde elizan 60 eta El Salvador parrokian 15. Azken hauen argazkiren bila aritu bagara ere, ez dugu lortzerik izan. Iruditan gainontzeko protagonista guztiak daude.



Argazkia: Renedo

**Lanbira**

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

**Keros**

Enmarkatzeak  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak

Labeaga,35 ☎ 72 41 61

**LIBURUENDAKANBARA**

Labeaga, 52  
☎ eta faxa: 72 50 45

# Langabezia, herritar askoren kezka

	<u>Ezkio-Itsaso</u>		<u>Urretxu</u>		<u>Zumarraga</u>	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
20 urte arte	0	0	5	7	16	13
20 / 24 urte	4	1	51	28	75	39
25 / 29 urte	3	1	51	30	101	58
30 / 34 urte	2	1	32	22	70	36
35 / 39 urte	0	0	24	10	57	24
40 / 44 urte	1	1	35	9	41	15
45 / 49 urte	1	2	19	5	29	9
50 / 54 urte	1	0	10	6	24	11
55 / 59 urte	0	2	6	18	3	37
59 urtetik aurrera	0	2	1	5	6	5
Guztira	12	9	234	140	422	247
<b>1064</b>	<b>21</b>		<b>374</b>		<b>669</b>	

Ezkio-Itsaso, Urretxu eta Zumarragako langabetuen apirileko datuak.

Zumarragako INEM bulegoan, Ezkio-Itsaso, Urretxu eta Zumarragako 1.064 langabetu zeuden izena emanda apirilaren bukaeran. Hauetatik 21 Ezkiotarrak, 374 urretxuarrak eta 669 zumarragarak dira.

Hala ere, Ramon Juaristik, bertako INEM eko zuzendariak, esan digunez bertan jasotako datuak errealitatea zenbateraino erakusten duten jakitea zaila da. Izan ere, ikasten dauden ikasleez gain, lan egiteko asmorik ez duen jende askok ematen baitu izena INEMeko bulegoan, dirulaguntza desberdinak jaso ahal izateko.

Juaristik emandako datuen arabera, urte hasieratik langabetuen kopuruak behera egin duela esan dezakegu. Hilean batez beste 300 kontratu inguru egiten dira eta urte hasieratik

martxora bitartean 887 kontratu sinatu dira.

Adinaren arabera, 25-45 urte bitartekoek osatzen dute langabetuen multzo handiena. Enpresariak bestalde, nahiago izaten du 20-35 urte bitarteko jende gaztea kontratatzea. Bi arrazoi izaten ditu enpresariak honetarako: Gazteak hobeto prestatuak egoteaz gain, enpresen beharretara eta teknologia berrira egokitzeo erraztasun handiagoa eta jarrera hobea izaten dutela eta 20-25 urteko gazteak praktika-kontratuekin sar daitezke enpresetan eta hau enpresarentzat merkeagoa da.

Kontratu berrietako %50a peoi lanetan aritzeko izaten omen da. Sexuari dagokionez, INEMen emakume gehiago izena emanda egon arren, kontratu berrien %79 gizonezkoent-

zat izaten da eta % 21 emakumezkoentzat.

Eskaerei dagokienez, ospitala, Irizar eta GSB-Bellota dira langile gehien eskatzen duten inguruko enpresak.

Aldikako lan enpresen sorrerak, (ALE edo ETT) eta Langaien sorrera nabaritu da INEMen eta orain lan egiteko eskaerak hiru toki hauetan egiten dira. Unibertsitateko kolegioetan ere, zenbait lizentziatuk topatzen dute lana.





Aldikako lan enpresek beharrak asetzeko funtzioa betetzen dutela adierazi dute sindikatuek. Honetaz gain, gazteen lan egoera kaxkarra konpontzeko batere baliagarriak ez direla salatu dute eta ALE en bidez kontratatutako langileen soldata bazuak ere salatu dituzte sindikatuek.

# Herritar asko izan da Eitzako jaietan

**E**itzako festak ez dira auzokoentzako jaiak bakarrik, Urretxu eta Zumarragar ugari inguratzen da San Isidrotan Eitzara. Gure artean oso errotuta dauden jaiak baitira hauek. Aurten maiatzaren 15etik 18ra ospatu dira bertako festak nahiz eta maiatzaren 10ean, mus txapelketa izan den. Denetik izan da bertan, haurrak, gazteak, helduak, jubilatua... guztiak izan dituzte kontuan antolatzailleek egitaraua prestatzerako orduan. Ekintzez beteriko asteburua izan da. San Isidro eguneko meza, auzotarrentzat antolatutako pertzakada txilindrona, XVII. toka txapelketa, X. kross herrikoa, plater tiroketa, eskupilota partiduak, Trintxerpeko Ilunbe txistu taldearen emanaldia, herri kirolak, Nafarroako jotak, musika taldeak gauero, Aldapa txaranga kalean gora eta kalean behera, Zaldua Anaia trikitilariak gau eta egun, Zuhaitzaren Soinua taldeko txalapartariak, Irrintzi dantza taldea,

Zumarragako musika banda, Eitzako astialdiko taldeak antolatutako jolasak, buruhandiak, jubilatuen-tzat hamarretakoa, Izazpi elkarteak antolatutako txokolatada... asteburua primeran pasatzeko aukera ugari.

Balorazioa egiteko garaian festa onak, eta partaidetza handikoak izan omen dira aurtengoak, auzotarrak izan dira gehienbat antolatutako ekintzetan parte hartu dutenak eta gainontzeko herritarren bisita ere gustukoa izan dute eitzatarrek.



# Ezkioko agerpenak ezagutzeko modua

**W**illiam A. Christian Jr. arkeologo kanadiar ospetsuak, 12 urtetan **Ezkioko Ama Birjinaren** agerraldiari buruz ikertzen aritu ondoren, *Las visiones de Ezkioga La República Española y el Reino de Cristo* liburuaren aurkezpena egin zuen maiatzaren 9an Ezkion eta 10ean Zumarragan.

1931. urteko ekainaren 29an Ezkioko bi neska-mutilei agertu zitzaion Ama Birjina lehen aldiz. Gerotik, ikusle ugari izan zen Ezkion, hilabeteetan gaue-ro izan baitziren agerraldiak. Ezkioko Ama Birjinaren agerraldiaren berria berehala zabaldu zen Euskal Herri-ara eta estatu espainiarrera. Inguruko herrietatik, Euskal Herriko probintzia guztietatik, Katalunia eta Gaztelatik milioi bat pertsona inguru gerturatu zen Ezkiora oinez, kotxez eta autobusez. 1980 hamarkadan, Medjugorjen Ama

Birjina agertu zen arte, Ezkio izan zen agerraldiak eman zireneko munduko tokirik bisitatuena.

**William Christian**, 1982. urtean hasi zen agerraldia ikertzen, liburuan, Ama Birjina ikusi eta berarekin hitz egin zuten ikusleen bizipenak

eta fede handiz ikusle hauek ikustera joaten ziren sinesteen testigantzak jaso ditu. Honetaz gain, garai-ko egoera politikoa eta egoerak agerraldian izan zuen eragina, egoera erlijiosoa eta orduko apaizek egin zuten lana, eta heritarren sinestena isladatzen da.

Agerraldiak sortarazi zituen egoerak, ilusioak, ikusmina, jakinmina batetik eta, errepublika eta Francoren errepresioak eta Gasteizko gotzaitegiak sortuta-

ko beldurrak, lotsak, debekuak... bestetik. Guztia jaso bezala kontatzen du autoreak liburuan.



William A. Christian Jr.  
**LAS VISIONES DE EZKIOGA**  
La Segunda República y el Reino de Cristo



Ariel



Oraindik ere, hileko bigarren igandean Ezkioko Ama Birjina agertu zeneko tokira jendea loreak eta otoitzak eskaintzera joaten da.

## William Christian, Eskerrikasko!

Harrigarria eta txapela kentzekoa, bai William Christian estatubatuarrak egindako lan mardula, oraindik orain gazteleraz *Ariel* argitaletxeak kaleratua: *Las visiones de Ezkioga. La República Española y el Reino de Cristo*. Nabarmentzekoak dira, lan honen sakontasuna eta zehaztasuna. Sakon aritu da Christian gertaerak aztertzen, artxibo eta liburutegiak miatzen, han eta hemen, amai-gabeko inurri lanean. Eta bestetik ehundaka gizon emakumerekin hizketan aritu da, haien lekukotasunak bere argibide, eta hortik-hara sortu zaizkio milaka bide-xidor, lanari jarraitzeko. Hemen eta atzerrian. Ondo baino hobeto ezagutu ditu gure bazterrak, gure aurrekoak, gure sinismen eta izaerak. Eta emaitza: liburu eder hau, galdutzat emandako hainbat argazkiz hornitua. Ez duzue ikusiko, ez, oraindik bizirik dagoen *ikusleren* baten izenik edo irudirik, Christianek zor dien erespetuaren adibide. Eta William Christiani berari buruz, zer esan? Lan-eredu bikaina eman digula, eta areago: gizatasun eta apaltasun erakusgai ahaztezina. Eta geuk, irakurleok, XXI. mendearen atarrian, liburu hau irakurririk, jakin dezagun nondik gatozen, nora goazen jakingo badugu. Azkenik, ohartxo bat: Liburu honen mamia euskaraz jasotzeko zoriona izango al dugu?

**Iñaki Bastarrika eta Jabier Otermin,**

Ezkioko agerpena ikertzen ibilitakoak.



# Berriketa gai desberdinak herritarren hitzetan



Maiatzaren 22an zineari buruz berriketan aritu ziren solaskideak

solasaldiak. Lehenengoan solaskideak, zerk bultzatuta hasi ziren euskaltegian, euskara ikasteko ahalegin handia egin ondoren, Urretxu eta Zumarragan hizkuntza erabiltzeko dauden eragozpenak eta hitzegitera animatuz jasotako laguntzen ingurukoak kontatu ziguten lau herritarrek. Hurrengo saioan, etorkizunean zine munduan aritzea gustuko luketen herritar gazteen esperientziak eta mundu horretan urteetan dabilzanek gazte hauei emandako aholkuak eta argibideak entzun genituen. Ilargiak naturan duen eragina eta maiatzan izandako tenporek datozen hiru hila-betetarako hego haizea, bero sargoria eta ekaitzak ekarriko dizkigutela Kultur Etxeko solasaldian azaldu ondoren, kontu hauek Euskadi Irratian kontatu dituztenak ere izan dira tarteran. Azken saioan garai bateko erromerietako dantza saioak eta izaten zen giroa ederki asko esplikatu ziguten.

Zintzo Mintzo elkarteak **Bisasti AEK euskaltegiaren** eta **Udal euskaltegiaren** laguntzarekin

batera, **BERRIKETAN** izeneko tertuliak antolatu ditu. Maiatza erdialdetik ekainaren hasiera bitartean izan dira



**ARTYRO**  
Eskolan edota etxean egin behar dituzun eskulanetarako behar duzun **guztia**

Ipeñarrieta, 4 ☎ 72 14 20 URRETXU

**ELIZ - KALE**

**AUTOESKOLA**

Bidezar, 11  
20700 ZUMARRAGA ☎ 72 04 52

**BIONA**

**ARozTEGIA**  
Altzariak neurritan

☎ eta faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU

ITURGINTZA




**LUIS ANGEL**

Gure erakusketan zain gauzkazu

Deskargarako bidea, z/g ☎ eta faxa 725459

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:  
En la edición de esta publicación colabora:

**kutxa** fundazioa  
fundación



**ANSA**

Ura guztion eskura!

S. Esnaola 34, etxeazpia  
20700 ZUMARRAGA ☎ 72 04 23

# Isilik, Grabatzen!

**Amador** laburmetraia grabatu dute Urretxu eta Zumarragan

**A**ngel Merinok eta Pepe Requejok betidanik izan dute oso gustukoa zine eta bideo mundua. Idatzizko istorioak irudietara pasatzeko gogoak elkartu zituen bi herritarrak eta bion artean leburmetraia bat egiteko erabakia hartu zuten.

Erabakia hartu ondoren, Angelek, **Amador** izeneko istorioa idatzi zuen. Zinera moldatu ahal izateko gidoia egin ondoren, Peppek eta biok testua irudietara pasatzeko planifikazioa egin zuten, plano bakoitza irudikatzen hasi ziren, aurreproduzioa antolatu zuten.

Baina irudietara pasatutako istoriaren antzezpina eta grabazioa martxan jartzeko talde tekniko bat behar zuten bi zuzendariak. Hemen hasi ziren hain ugariak izan diren telefono deiak. Angel, *Sarobe*, Urrietako zine eskolako bere lagunekin jarri zen harremanetan eta beraiekin lan egingo zuten kamarak, argazki zuzendariak... lortu zituen. Guztiak laguntzeko prest zeuden, ideia gorpuzten ari zen.

Urretxuko Kultur Etxeko teknikariak ere orain hasi ziren jo ta ke lanean. Andoainen zine eta bideo ikasketak egindako herritarren zerrenda eman zien zuzendariari. Zerrenda honetatik, kamara laguntzaileak, argiztatzailak, elektrizitate lanetan ibiliko zirenak, lortu zituzten, denak herritarrak.

Angel eta Peperen nahia, kalitatezko laburmetraia egitea izan da hasieratik eta aktore nagusiak, profesioanalak izan zitezten nahi zuten. Berrito ere,



Angel Merino eta Pepe Requejo **Amador** laburmetraiaren zuzendariak

Kultur Etxeko bidez, Juanlu Escudero aktore zumarragarra-ekin jarri ziren harremanetan. Ideia asko gustatu zitzaion honi eta Geroa antzerki taldean berarekin lan egiten duen Rosa Martinez durangarra ekarri zuen lanera.

Talde teknikoa eta protagonista nagusiak zituzten, baina nork egingo zituen bigarren mailako antzeppen lanak, nortzuk izango ziren aktore extrak?

Juanluk antzerki tailerreko bere ikasleak jarri zituen lanean. Antzerki eta zinema munduarekin zer ikusirik ez zuten herritarrak ere taldean sartu ziren zuzendariak hala eskatuta.

### **3,2,1...Grabatzen!**

Taldea osatuta zegoen. Grabatzen hastea falta zen bakarrik. Iritsi da ordua. 7 egunetarako kontratatu ziren kamarak, monitoreak, argiak, mikrofonoak... beraz, astebete zuten grabazioarekin hasi eta

bukatzeko. Goizeko zazpi terdietan zuten zita egunero eta gaueko 11etan etxeraten ziren, inoiz ordu txikitari ere oheratu dira, goizeko hirurak ere jo baitielako grabazio lanean.

Ordu asko, lan handia baina batez ere, taldekideek zuten lan egiteko gogoia eta beraien arteko giro ezin hobea

---

**Hasieran ez genuen uste proiektu honek horrenbesteko lana emango zigunik, egin beharrekoa sinplegoa izango zela pentsatzen genuen martxan hasi ginenean. Hala ere dudarik gabe, merezi izan du hartutako lanak**

---

izan dira zazpi egun hauetako protagonistak. Guztiak xoxik kobratu gabe egin dute lana, musutruk eta zuzendariak benetan eskertzen dute hauen jarrera.

Laburmetraiak 200.000 pezetako aurrekontua izan du, materialen alokairua ordaindu behar izan delako. Urretxuko Kultura Batzordeak %50 finantziatu du, 100.000 pezetako laguntza eman du.

### **Muntaketa lana**

Orain bigarren fasean daude. Grabatutakoaren muntaketa egiten. Bukatu da traste guztiarekin kalean gora eta kalean behera ibiltzea. Ez dago toma gehiago errepikatu beharrik, hori ere bukatu da! Piska bat lasaitu dira guztiak, baina oraindik ere lan handia gelditzen zaie laburmetraia bukatu arte. Amaitutakoan, noiz izango den ez dakite, **Amador** ikusgai izango da Urretxuko Pagoeta Antzokian, eta behar-

bada grabazioan egindako 400 argazkiekin eta erabilitako materialarekin erakusketaren bat ere antolatuko dute.

Angel Merino eta Pepe Requejok izan duten taldea goraiatu dute behin eta berriz "ikaragarritzko taldea osatu dugu, eta sekulako giroa izan da guztion artean 7 egunetan. Guztion artean izan dugun harremana ezin hobea izan da,


**Muntaketa lanak  
bukatatutakoan  
laburmetraia ikusgai  
izango da Pagoeta  
antzokian**

oso gustura gaude. Taldeko partaide gehienak oso gazteak dira, bataz beste 25 urte inguruko jendea aritu da bertan, eta lan handia eta maila onekoa egin dute". Angel Merinok lehenago ere, honekalo proiektuetan parte hartutakoa da eta berak esan digu, "aurretik izan ditudan modu honetako esperientzietan ez dut inoiz taldeki-deen artean honelako giro ona ezagutu".

Bukatzeko bi zuzendariak, taldekide guztiei horrenbeste lan musutruk egiteagatik esker-rrak emateaz gain, komertzioetan doan grabatzen utzi dien herritarrei eta antzezlan lanean aritu diren herritar guztiei eskerrak ematen dizkiete. Guk lanean jarri ditugu, ea muntaketa lanak lehenbaitlehen bukatzen dituzten eta laster laburmetraia ikusteko aukera dugun!.



# Fitxa Teknikoa



## Talde teknikoa:

Zuzendaria: **Angel Merino**  
eta **Pepe Requejo**  
Argazki zuzendaria: **Gorka Salmeron**  
Kamara: **David Tudela**  
Kamara laguntzailea: **Diego Vidania**  
Script: **Conchi Diez**  
Argizatze laguntzailea: **Raquel Toquero**  
**Irene Arranz**  
Mikrofonista: **Jon Tirapu**  
Makilatzailea: **Ainhoa Izagirre**  
Ileapaintzailea: **Juan Cruz Fernandez**  
Mimoren jantziak: **Mikel Arranz**  
Dekoratzaila: **Marisa Iturbe**  
Elektrizitate lanetan: **Igor Urrestarazu**

## Aktoreak:


Aktore nagusiak:  
Amador: **Juan Luis Escudero**  
Leire: **Rosa Martinez**  
Bigarren mailako aktoreak:  
Kamarera: **Ainhoa Izagirre**  
I. Lapurra: **Oscar Cadierno**  
II. Lapurra: **Cheiki Amar Bovalem**  
Amador umetan: **Jon Cadierno**  
Amadorren ama: **Josefina Pereira**  
Neska txikia: **Olaia Bilbao**  
Ama: **Garbiñe Askasibar**  
Hiltzailea: **Miguel Zufiria**  
I. Emakume aberatsa: **Encarni Azkarate**  
II. Emakume aberatsa: **Pili Arrizabalaga**  
Irakaslea: **Gorka Mendia**  
I. neska: **Estitxu Gomez**  
II. neska: **Estitxu Zaldua**  
Udaltzaina: **Joaquin Gil**

# Izan al duzu inguruko herritako festetara joateko ohiturarik?



## Tere Mendiguren

Matxinbentakoa naizenez, Kizkitza zen lekurik ederrena. Ormaiztegiara, Beasainera joaten ginen. Mandubian udan erromeria igandero izaten zen. Matxinbentan erromeria urriatik udaberrira arte izaten zen.




## Martin Zabaleta

Garai batean oso gutxi Deskargara eta Santa Barbara joaten ginen. Deskargan erromeria handia izaten zen. Elosua eta Gortara ere joaten ginen. Urretxu eta Zumarragara, berandu soldaduska egin eta gero.



## Maite Alonso

Batez ere nire herrian, ni Legazpikoa naiz. Zumarragara, Urretxura eta Beasainera ere joaten naiz



## Patri Arrazola

Ni plazentziarra naizenez gaztetan Plazentziatik Bergarara, Eibarrera, Elosuara, Arrasate ingurura joaten nintzen. Zumarragara ez ginen etortzen. Orain Zumarraga, Urretxu eta Legazpira joaten gara gehien.



## Cristina Blanco

Ez naiz oso festazalea baina, Beasainera, Ordiziara, Azpeitiara, Azkoitira, Zarautzera, Donostiara joaten naiz. Inguruko festetara.



## Maitane, Mirari eta Alaitz

Herriko festa guztietara joaten gara, Eitza, Kalebarren, Geltokira. Baita Legazpiko festetara ere.



## BAPRI

Animaliadenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13



## Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11 URRETXU ☎ 72 25 99

## TEJANO




## Azken moda berria!

Ipeñarrieta, 4 Urretxu

# Euskadiko XVI. eskolarteko jokoak

Zumarragak hartu du aurten urtero Euskal Herriko probintzia desberdinetan antolatzen diren Euskadiko eskolarteko jokoak antolatzeko ardura. Asteburu honetan, maiatzaren 31an eta ekainaren 1ean Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 2.500 neska-mutil inguru etorri dira kirol probak egitera. Datorren asteburuan, hilaren 7an bukatuko dira joko hauek. Urretxu eta Zumarragarako kirol eraikuntza desberdinetan futbola, eskubaloia, beisbola, pilota, xakea, judoa, herri kirolak, saskibaloia, gimnasia erritmikoko probak egin dituzte gazte hauek. Igandean, hilak 1ean egindako euri jasak izan zirela eta ezin izan ziren kanpoan jokatu beharreko zenbait proba egin. Mugitegin izan beharreko txirrindularitza proba, Argixaoko futbol partiduak eta Izzapi aldera egin beharreko mendi irteera bertan behera geratu ziren.



## Lehiaketak

✓ Urretxu eta Zumarragako udaleko Kultura Batzordeek antolatutako lehiaketak: **XIII. Bertso-Paper Lehiaketa, IX. Pintura Lehiaketa, IX. Komiki Lehiaketa, narratiba eta poesiako Iparragirre Saria eta argazki lehiaketa.** Lanak aurkezteko epea irailaren 26an bukatuko da eta Urretxuko Kultur Etxera edota Zumarragako udaletxeko Kultura Sailera bidali edo eraman beharko dira. Lehiaketa guztiei buruzko informazio gehiago ere bertan aurki daiteke.

## Musika Eskola

- ✓ **Secundino Esnaola Musika Eskolaren V. kontzertu zikloa** izango da.  
 Ekainak 4: **Oboe-saxofon** emanaldia.  
 Ekainak 5: **Akordeoi-txistu** emanaldia.  
 Ekainak 6: **Klarinete** emanaldia.
- ✓ **Ekainak 12: Entzunaldia** Legazpi Dorretxean.  
**Trikitilari eta panderojoleen kalejira** Kalebarrenen, arratsaldeko 7:30etan.
- ✓ **Ekainak 14: Trikitilari eta panderojoleen kalejira** Kalebarrenen, eguerdiko 12:30etan.

✓ **Ekainak 19: Ikasturte bukaerako kontzertua** Pagoeta Antzokian arratsaldeko 7:30etan.

✓ **Ekainak 21: Trikitilari eta panderojoleen kalejira**, Urretxu-Zumarragako kaleetan, ikasturte bukaerako ekintza da hau.

## Musika Banda

- ✓ **Ekainak 15: Musika Bandaren kalejira** Kalebarrenen.
- ✓ **Ekainak 23: Musika Banda eta Aintzinako Ama txistularien kalejira.** San Juan suan San Juan ereserkia interpretatuko dute.
- ✓ **Ekainak 29: Zumarragako festetako kontzertua** eskainiko du Musika bandak.

## Musika Tailerra, Txistulariak

- ✓ **Ekainak 8: Musika tailerrak eta txistulari taldeak kontzertua** eskainiko du **Pablo Sorozabalen** omenez, bere jaiotzaren menderenean. Iparragirre enparantzian izango da eguerdiko 1:00etan. Eguraldi txarra eginez gero jubilatuen elkartean izango da.
- ✓ **Urretxu eta Zumarragako txistulariek** igandero kalejira egingo dute.

## Metal Seikotea

✓ **Ekainak 21: Metal seikotearen kontzertua.**

## Erakusketak

- ✓ **Ekainak 5-10: Hondakinez egindako esku-lanen erakusketak.** Ikastolako ikasleek egindakoak. Aldaketa erakusgelan izango da, ohizko orduetan.
- ✓ **Ekainak 6-15: Jose Luis Agirre** zumarragararen **pintura** erakusketa Itarte etxean.
- ✓ **Ekainak 20-24:** Santa Isabel jaietarako esku egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, Itarte Etxean.
- ✓ **Ekainak 20-29: Harizpi esku-lan taldearen erakusketa**, Aldaketa erakusgelan
- ✓ **Ekainak 20-30: Iker Antia** pintore urretxuarraren **pintura erakusketa** Aldiri Kultur Elkartean.
- ✓ **Ekainak 27-Uztailak 6: Jose Mari Sasieta** eskultore zumarragararen **eskultura erakusketa** Itarte Etxean.

# Kahunas

O'Neill-Astore-Liberto-H.W.-Libero

Nekolalde,5

☎ 72 56 89

Secundino Esnaola,5  
 ☎ 72 42 07  
 ZUMARRAGA

A



deportes

## APALATEGUI

Zabaleta, 3  
 ☎ 28 77 87  
 DONOSTIA

## Jaiak

✓ **Ekainak 13,14,15: San Anton jaiak** ospatuko dira Kalebarren-Areizagan. Ekintza ugari izango dira bertan, herriko talde ugari girotuko dituzte jaiak.

✓ **Ekainak 21-24: San Juan jaiak.**

**Ekainak 21: OSKORRI eta KUKU-BILTZO** taldearen kontzertua Gemikako Arbola plazan. **Doan** izango da eta Urretxuko udalak eta Urretxuko Aldapako tabernariak antolatutako ekintza da.

**Ekainak 23: San Juan sua** Gemikako Arbola plazan gaueko 10:30etan. Ondoren trikitilariak izango dira.

Zumarragako plazan ere San Juan sua erreko da.

**Ekainak 24: San Juan eguneko erromeria** Santa Barbaran. **Mahaia** lortzeko izena ematea Kultur Etxean egin behar da **ekainaren 6tik 17ra bitartean.**

✓ **Ekainak 29, Uztailak 1-6: Santa Isabel jaiak** ospatuko dira.

**Ekainak 29: Haurren eguna.** Haurren damborrada egingo da. RENFEko lubakiaren (trintxeraren) inaugurazioa.

Uztailak 1: **Elkarteen damborrada**

Uztailak 2: **Santa Isabel Eguna**

Uztailak 3: **Baserritarren Eguna**

Uztailak 5: **Koadrilen Eguna**

## Dantzari Txiki Eguna

✓ **Ekainak 22: Urretxuko Lurra Dantza Taldeak** antolatutako **Dantzari Txiki eguna.**

Goizean Pagotatik irtenda, Areizaga plazaraino kalejira egingo dute dantzari guztiek.

Arratsaldeko 5:30etan **dantza ikuskizuna** izango da Lizeoko plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Ederrena pilotalekuan izango da dantza jaialdia.

**IGOR ELGARRESTA** zenari, Lurra dantza taldeko txistularia zenari **omenaldia** egingo zaio egun honetan.

## Mairi

✓ **Ekainak 4: Herentzia eta testamentuak** hitzaldia. Kultur Etxean izango da arratsaldeko 3:30etan. Kontsumo Sailaren eta Kontsumo Bulegoaren laguntzaz antolatutako ekintza.

✓ **Ekainak 9: Eguzkia eta eguzki alergiaren prebentzioak** izeneko hitzaldia. Hizlaria, Arantxa Albisua urretxuarra izango da. Ekintza hau Kultur Etxean izango da arratsaldeko 3:30etan.



● **Zorionak INES!**  
Lan asko ematen al dizu Aitorrek?  
Kantaiozu  
"Semetxue lo eta lo zuk orain eta nik gero zuk nahi duzun orduren batean biok egingo dugu lo".  
Eta gurekin kurtsu amaietarako afaria eh?



● Argazkiko hiru mutikotxo hauek badute ospakizunik maiztean eta ekainean. Aldamenetako bi txikitxoek maiztean egin dituzte bi urte eta erdiko bihurriak, berriz, ekainaren 8an ospatuko du bere seigarren urte betetze eguna. **Zorionak, Iñigo, Joanes eta Xabier!**

● Ekainaren leian hiru urtetxo bete zenituen!!!  
Ez zara ba gu harrapatu nahian ibiliko? Zure koadrilako txikitxoaren partetik,  
**Zorionak AINHITZE**



● Zorionak, Legazpiko ilegorri sortu baituzu bizi berri.  
**Zorionak SORKUNDE!**

**MASTER** CADENA **HEZKOR**

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31



**MAPFRE**  
Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 ZUMARRAGA  
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

**EDURNE**

Punta Puntako moda !

Aukerarik hobereana  
gizonezko eta gazteentzat

Piedad, 18 Zumarraga ☎ 72 14 17

# AUTO ASEGURUA

- Segurutik zuregandik hurbilago gaude, zu hobeto zerbitzatzeko
- Segurutik noranahi joanda ere, Laguntzarako Telefonoa izango duzu
- Segurutik Bidaietarako Laguntzan Estaldurarik Hoberenak izango dituzu
- Segurutik Peritazioa Azkar baino azkarragoa izango da
- Segurutik zure Hobariak kontuan hartuko ditugu
- Segurutik gure prezioen truke ez duzu estaldura hoberik aurkituko



Kalebarren, 1. Tel:72 50 22

**ZUMARRAGA**



**SEGUROS LAGUN ARO  
ASEGURUAK**

Euskadiko Kutxa Taldekoa